

DIRU SARRERAK

Gure Berrizjolastu proiektuan dirua ez dugu modu bakar batean lortuko, baizik eta hainbat bide erabiliko ditugu proiektua mantentzeko. Gure helburua ez da aberastu, baizik eta sistema jasangarri bat sortzea, jostailuei bigarren aukera ematea eta familiei laguntzea prezio merkeagoekin. Horregatik, prezioak ez dira altuak izango, baina nahikoak proiektua aurrera eramateko.

Lehenik eta behin, diru-sarrera nagusia jostailuen salmenta izango da. Jendeak jostailuak doan uzten dizkigu Juguettosen dagoen bilketa-kutxan. Guk jostailu horiek jasotzen ditugu, garbitu, desinfektatu eta behar bada apurtutako gauzak konpontzen ditugu. Ondoren, gure denda fisikoetan (eta etorkizunean agian online ere bai) salduko ditugu. Prezioak merkeak izango dira, jendeak animatzeko eta familia guztientzat eskuragarri egoteko. Hau izango da gure diruaren zati handiena, proiektuaren motorra, Jostailuen salmentak urtean 8.000 euro inguru ekarriko ditu.

Bigarren diru-iturri bat izango da puntu-sistema. Juguettos dendan jostailuak uzten dituzten pertsonak puntuak jasoko dituzte. Puntu horiek gure dendako erosketetan erabiltzen dira, deskontuak egiteko. Bezeroak prezio baxuagoa ordaintzen du, baina guk oraindik ere dirua jasotzen dugu. Sistema honek jendea motibatzen du jostailuak uztera, eta horrek gure proiektua bizirik mantentzen laguntzen du. puntu-sistemak urtean 3.500 euro inguru ekarriko ditu.

Hirugarrenik, Juguettosek berak ekarpen ekonomiko txiki bat egingo du. Ez da dirutza bat, baina proiektua mantentzen laguntzen du. Haienez ere ona da, irudi positiboa ematen dielako, eta jende gehiago erakartzen duelako dendetara. Beraz, bi aldeentzat onuragarria da. Haien laguntza ezinbestekoa da guretzat, bilketa puntuak haien dendetan baitaude. Juguettosen ekarpenak urtean 2.000 euro inguru izango dira.

Bestalde, badago beste diru-sarrera bat, nahiz eta txikiagoa izan: material birziklatuen salmenta. Konpondu ezin diren jostailuak ez ditugu botako; birziklatzeko enpresa batera eramango ditugu. Plastikoa, metala edo beste material batzuk berriro erabil daitezke, eta horrek diru kopuru txiki bat ekarriko digu. Ez da asko, baina proiektu jasangarri bat izateko lagungarria da. Material birziklatuen salmentak urtean 1.500 euro inguru ekarriko ditu.

Hasieran gastua bada, baina diru-sarrerak pixkanaka-pixkanaka etorriko dira. Gure ideia da lehenengo hilabeteetan lasai joatea, eta urtebete inguruan gastuak estaltzea lortzea. Hortik aurrera, proiektua bere kabuz funtzionatzea da helburua.

Orokorrean, diru-sarrera guztiak kontuan hartuta, urtean 15.000 euro inguruko diru-sarrerak izatea aurreikusten dugu. Kopuru horrek proiektua martxan mantentzeko eta gastuak pixkanaka estaltzeko aukera emango digu, betiere irabazi handiak bilatu gabe.